

3. KASU PRAKTIKOA

10 puntu



1. FASEA – INFORMAZIOA

Denbora: 10 min

Puntuazioa: 1,5 puntu

Gaur asteartea da, 08:30ak dira, eta Bizkaia Prest-en zaude, zure zaintza-postuan (Dispatching).

Zaintzako 3 sarjentu daude, Uriosten, Iurretan eta Basaurin.

Zaintzaren egoerari buruzko txosten hau eman berri dizute:

Uriosteko suhiltzaile-etxea

Langileak: 2 kabo + 9 suhiltzaile-gidari

Ibilgailuak: B13 eta E1 tailerlean

Basauriko suhiltzaile-etxea

Langileak: Kabo 1+ 7 suhiltzaile-gidari

Ibilgailuak: Denak funtzionamenduan

Artatzako suhiltzaile-etxea

Langileak: Kabo 1+ 7 suhiltzaile-gidari

Ibilgailuak: F3 zerbitzuz kanpo

Iurretako suhiltzaile-etxea

Langileak: Kabo 1+ 7 suhiltzaile-gidari

Ibilgailuak: Denak funtzionamenduan

Gernikako suhiltzaile-etxea

Langileak: Kabo 1+5 suhiltzaile-gidari

Ibilgailuak: Denak funtzionamenduan

Zallako suhiltzaile-etxea

Langileak: Kabo 1+ 3 suhiltzaile-gidari

Ibilgailuak: E6 tailerlean

Markinako suhiltzaile-etxea

Langileak: Kabo 1+ 5 suhiltzaile-gidari

Ibilgailuak: C7 tailerlean

Derioko suhiltzaile-etxea

Langileak: Kabo 1+ 4 suhiltzaile-gidari

Ibilgailuak: C8 zerbitzuz kanpo

Komunikazio-zentroan zaintza egiten ari zarela, SOS-Deiaken aktibazio hau jaso da:

«Istripua harrapatuekin (TG2). Amorebieta Bi-635, 26 KP, Urdinbideko tunelak (Autzagane). Furgoneta batek ibilgailu bat jo du. Gutxienez harrapatu bat. Tunelaren barruko zirkulazioa geldi».

Handik 15 segundura, SOS-Deiaketik baieztapen hau heldu da:

«Istripuan, furgoneta batek ibilgailu bat jo du; furgoneta alboz iraulita dago, ibilgailuan harrapatu bat dago eta furgonetan bi»

1. FASEA - GALDERAK

1. Zer jarduketa egin behar duzu lehenengo? (puntu 1)

2. Zer udalerritak igarotzen zara Ortuellatik, A-8an zehar, BI-635 errepidera sartu eta Autzaganeko tuneletara iritsi arte?

(0,5 puntu. Okerreko udalerrri bakoitzagatik 0,10 puntu kenduko dira atal honetan)

2. FASEA - INFORMAZIOA

Denbora: 5 min

Puntuazioa: 1,25 puntu

Telefonoz hitz egin duzu tuneleko kontrol-zentroarekin, eta azaldu dizute istripua G-1 larrialdietako atearen parean gertatu dela. Tunelean hodi paralelo bi daude, noranzko bakarrarekin, eta bakoitzak errei bi ditu. 695 metro ditu. Istripua Gernikarako noranzkoa duen hodian gertatu da, sarrerako ahotik 200 metro ingurura.

Hodi bietako zirkulazioa itxi dute, baina tunel barruan zenbait auto geldi daude, istripua gertatu den lekua baino lehenago. Autoek erdiko korridore bat osatu dute, larrialdiko ibilgailuei igarotzen uzteko.

Iurretako sarjentuak (SZ4) irratiz esan dizu heltzear dagoela, eta jakin nahi du nolakoa den tunelaren barruko suteetako ur-hargune hornitua, erabili beharra balego ere.

2. FASEA - GALDERAK

- 1. Eman itzazu argibide egokiak. (0,45 puntu)**

- 2. Azaldu SZ4 sarjentuari nolako den suteetako ur-hargune hornitua, kontuan harturik zer ezarrita dagoen Errepideetako Tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak onartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2012 Dekretuaren V. eranskinean. (0,8 puntu)**

3. FASEA - INFORMAZIOA

Denbora: 5min

Puntuazioa: 1,25 puntu

QTHra bidean, Bizkaia Prest-etik dei bat jaso duzu, adierazteko sute bat dagoela Balmasedako etxebizitza batean. Etxebizitzaren egitura hormigoizkoa da, eta garrak irteten dira 4. solairuko leihotik; ez dakigu etxebizitzaren barruan inor dagoen.

Bestalde, SZ4 sarjentuak jakinarazi dizu heldu dela istripua gertatu den lekura, eta baieztatu dizu autoaren barruan biktima bat dagoela eta alboz iraulitako furgonetaren barruan bi biktima daudela. Erregaia isurita dago, eta ibilgailu bien motorrak geldi daude.

Baieztatu dizu tunel biak itxi direla, eta lanabesetarako bi furgoneta behar direla. Barruko autoak tunelaren albo bietara baztertu dira.

3. FASEA - GALDERA

Zer argibide emango duzu, informazio hori kontuan hartuta? (1,25 puntu)

4. FASEA - INFORMAZIOA

Denbora: 15min

Puntuazioa: 5 puntu

Fenix 4ko dotazioa furgonetan harrapatuta geratu direnak ateratzeko lanetan ari da. Fenix 5eko dotazioa istripu-lekura iritsi da. Sz4 sarjentuak irratiz adierazi dizu erregai-isuriak su hartu duela, eta istripua baino lehen geldi dauden ibilgailuen artetik doala.

Istripu-lekura iritsi zara, egoera aztertu duzu Sz4 sarjentuarekin batera, eta hau da intzidentearen egoera:

-lurretako dotazioa furgonetatik biktimak ateratzeko lanetan ari da.

-Isuritako erregaia sutan dago

-Pertsona batzuk tuneletik irteten ari dira, oinez, Amorebietako sarreratik (hegoaldeetik).

-Tunelaren barruko sutearen kea iparraldeko sarreratik irteten ari da, Gernikarako irteeratik.

-Anbulantzia eta polizia hegoaldeko sarrera baino aurrerago aparkatuta daude.

Agintea zure gain hartu duzu

4. FASEA-GALDERA

Azaldu zure arrazoibide taktikoa eta eman eman beharreko aginduak. (5 puntu)

5. FASEA - INFORMAZIOA ETA GALDERAK

Denbora: 5min

Puntuazioa: puntu 1

Fenix 4ko taldea istripuan harrapatuta geratu direnak ateratzeko lanetan ari den bitartean, trafiko-istripuetako erreskateen azterketa egin duzu.

Deskribatu nola egonkortu behar den alboz iraulita dagoen ibilgailua, eta zer babes-ekipo erabili behar dituzten inplikaturako pertsonak eta erreskatatzaileak.

